

REAS Euskadi

2019ko maiatzaren 26ko
udal eta foru
hauteskundeen aurrean



reas
euskadi

ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea
red de economía alternativa y solidaria

REAS Euskaditik (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea), datozen hauteskundeak direla eta, alderdi politikoei, herritarrei eta gizarte eragileei zuzendutako deialdi publiko bat egin nahi dugu, bizitzaren jasangarritasunean oinarritutako eta pertsonen eta guztien onaren zerbitzura egongo den eredu ekonomiko berri bat bultzatuko duten proposamen zehatzak eraiki eta garatzeko.

1. Bizitzaren jasangarritasunerako politikak

1.1. Ekonomia feminista

- ✓ Berdintasunerako eta bizitzaren jasangarritasunerako tokian tokiko planen diseinua eta garapena; diagnostiko baten gauzatzea eta ekintza plan bat izango dituen.
- ✓ Genero ikuspegia duten aurrekontu parte-hartzaileen elaborazioa.
- ✓ Pertsonen zaintzaren beharrak aintzat hartuko dituen kalitatezko zerbitzu publikoen garapena: 0-2 urte, pertsona helduak, dibertsitate funtzionala duten pertsonak...
- ✓ Irabazi-asmorik gabeko kooperatiben sorrera eta zaintzen zerbitzuekin loturiko komunitateko espazio asoziatiboak bultzatzea.
- ✓ Genero ikuspegia kontuan izango duten mugikortasun inklusiborako planen diseinua eta garapena (irisgarritasuna, segurtasuna...).
- ✓ Herritarren beharrei egokitutako planifikazio urbanistikoa.
- ✓ Emakumeak lan munduan sartzea sustatzen duten lan-politika zehatzen garapena.
- ✓ Ugalketa lana kontuan hartuko duten lanerako politika publikoak diseinatzea eta abiaraztea.
- ✓ Lanerako politikei dagokienez, politika publikotik abiarazitako helburuen artean txerta dezatela sexuaren arabera lanaren banaketa ezabatzea..

1.2. Ekonomia ekologikoa

- ✓ Energiaren kontsumoan, mugikortasunean eta garraioan, hondakinen kudeaketan eta produkzioan eragina izango duen trantsizio ekologiko baterako plan estrategiko bat identifikatu eta garatzea.
- ✓ Lurraldeko auditoretza energetiko bat bultzatzea, kontsumoaren arrazionalizaziorako plan bat garatzeko, etxeko mailan, industriakoan nahiz publikoan.
- ✓ Energia berriztagarrien sorrera eta euren komertzializazio publikoa sustatzea eta horiekin erlazionaturiko ekimen sozialeko kooperatibak bultzatzea.
- ✓ Pobrezia energetikoaren aurkako borrokarako estrategia bat sustatzea.

- ✓ 0 hondakin politika garatzea.
- ✓ Ekonomia sozial eta solidarioko enpresak hondakinen kudeaketarako zerbitzu emaile gisa aitortzea.
- ✓ CO2 igorpenen murrizketarako plan baten garapena: energia berriztagarrien erabilera, eraikuntzen birgaitze ekologikoa sustatzea eta garraio publiko eta mugikortasun jasangarrirako neurri politikoaren garapena.
- ✓ Herri baratzeen garapenari loturik, auzolanean egindako konpostatzea sustatzea.
- ✓ Konponketa jarduerak eta berreskuratutako eta bigarren eskuko artikuluen salerosketa bultzatzea.
- ✓ Garraio publikoaren eta ez-kutsagarriaren erabilera errazten duten administrazioetan nahiz tokiko enpresa publikoetan, lan-pizgarriak sustatzea.

1.3. Elikadura burujabetza eta agroekologia

- ✓ Tokian tokiko produkzio agroekologikoa sustatzeko neurriak: lurra lagatzea edo errenta baxuak ezartzea, sostengua kooperatibei, laguntza nekazari berriei...
- ✓ Elikadura osasuntsu eta jasangarria (Km 0) sustatzeko klausula sozialak eta merkatu erreserbak ezartzea zerbitzu publiko guztietan: eskoletan, egoitzetan, 0-2 urtekoen geletan, mendekotasuna duten pertsonentzako arretan...
- ✓ Erabilerarik gabeko lur publikoa lagatzea edo errenta baxuak ezartzea herri baratzeak egiteko.
- ✓ Irizpide agroekologikoetan oinarritutako parke eta lorategien kudeaketa.
- ✓ Auzokonpostatzea egiteko eta hondakinen ustiapenerako bestelako ekimenetarako programak garatzea.
- ✓ Espezie autoktonoen bioaniztasunaren babesa: hazien bankuak, germoplasma, espezie autoktonoen haztegi publikoak...
- ✓ Supermerkatu kooperatiben eta elikagai-subiranotasunaren zein agroekologiaren irizpideak jarraitzen dituzten kontsumo taldeen sorrera eta mantenua sustatzea eta horiek babesteko neurriak garatzea.

2. Pertsonen zerbitzurako ekonomia baterako politikak

2.1. Ekintzailletza soziala eta kooperatiboa

- ✓ Tokiko plan estrategikoak garatzea ekonomia sozial eta solidarioa bultzatzeko, finantziatorako ildo zehatzekin.
- ✓ Ekonomia sozial eta solidarioaren sustapenerako ereduak horniduren identifikazioa eta bultzada, herritarrentzat nahiz tokiko eragile ekonomikoentzat: ekonomia sozial eta solidarioko enpresentzako erakarguneak eta merkataritza ganberak, eskolak eta ekintzailletza sozialerako programak, ateneoak, garapen kooperatiborako guneak...
- ✓ Espazio fisikoen eta baliabide teknikoaren eta materialen lagatzea edota erraztea, ekintzailletza sozial eta kooperatiboko ekimenak garatzeko.
- ✓ Ekonomia sozial eta solidarioko enpresak finkatzeko ildoak garatzea: sareko baliabideak, formazioa eta aholkularitza, komertzializazio estrategiak...
- ✓ Enpresen berreskuratzea eta ekonomia sozial eta solidarioaren bilakaera babestea.
- ✓ Izaera mistoko (publiko eta sozialeko) kooperatibak garatzea, komunitateko zerbitzuen garapenerako.
- ✓ Alor agroekologikoan ekintzailletzarako ildoak zehazki bultzatzea landa-eremua berreskuratze eta elikagaien hobekuntza lortzeko.

2.2. Merkatu Soziala

- ✓ Kontsumo kritiko, kontziente eta eraldatzailea bultzatzeko plan zehatzak landu eta garatzea, eta ekonomia sozial eta solidarioaren merkatu sozialaren sareak bultzatzea.
- ✓ Ekonomia sozial eta solidarioko merkatuaren baitako erakunde, produktu eta zerbitzuen maparatzea eta ikusgarritasuna barne hartzen duten kanpainak egitea.
- ✓ Merkatu sozialaren logistikarako eta komertzializatorako espazio eta baliabideak lagatzea.
- ✓ Ekonomia sozial eta solidarioko azoken garapenean eta merkatu soziala sustatzen duten bestelako ekimenetan parte hartzea eta babes ematea.
- ✓ Komertzializatorako zirkuitu laburren bultzada lehenestea, horren barruan ulertzen direlarik hurbileko eta tokiko komertzioaren aldeko babes neurriak hartzea eta saltoki handien hazkuntzari mugak jartzea.
- ✓ Administrazio publikoek eta euren enpresa eta zerbitzuek merkatu sozialaren produktu eta zerbitzuak kontsumi ditzatela.
- ✓ Besteak beste, hurbilekoak, agroekologikoak eta artisauak diren produktuak saltzen dituzten ohiko merkatuak berreskuratzea.

- ✓ Kontsumorako bulegoetako langileen trebakuntza kontsumo arduratsuaren inguruan.

2.3. Finantza etiko eta alternatiboak

- ✓ Administrazio publikoek finantza etikoetako erakunde kooperatibak erabiltzea: bazkide gisa, bezero gisa, etab.
- ✓ Administrazioaren eta finantza etikoetako erakundeen artean, abalak, errotazio-fondoak eta mikrokredituak bezalako tresnak garatzea, ekonomia sozial eta solidarioko proiektuen garapenerako, esku-hartze sozialeko diru-laguntzen aurrerakinerako, garapenaren elkarlanerako, behar sozialen arretarako...
- ✓ Finantza etikoen aldeko adierazpen instituzionalak bultzatzea.
- ✓ Herritarren sentsibilizaziorako kanpainak egitea eta finantzen inguruko heziketa bermatzea, finantza etiko eta alternatiboen irizpideetan oinarrituz.
- ✓ Parte-hartze publikoa herritarren mikrofinantziario proiektuetan (funtsak bikoiztea matchfunding ekimenen bidez).

2.4. Bidezko Merkataritza

- ✓ Jarrera politiko bat hartzea, zeinak interes komertzialak giza eskubideekin, langileen eskubideekin eta ingurugiroaren zaintzarekin orekatzearen aldeko apustu egingo duen.
- ✓ 2020ko Europako Estrategia eta 2030eko Agenda betetzeko tokian tokiko ekimenak bultzatzea, bereziki, produkzio jasangarriari, kontsumo arduratsuari, pobrezia kontrako borroka eta berdintasun ezari, genero berdintasunari eta aldaketa klimatikoari buruzko helburuei dagokienez.
- ✓ Nazioarteko Hitzarmen Lotesle baten aldeko mozio bat aurkezteko konpromisoa hartzea udaleko edo autonomiako osoko bilkuraren aldetik, zeinak enpresa transnazionalak beren hornitze kate osoan zehar Giza Eskubideak eta ingurugiroaren errespetatzera behartuko dituen.
- ✓ Multinazionalak behatuko dituen legegintza-ekimenen eta mekanismo lotesleen sustapena babestea.
- ✓ Bidezko Merkataritza udal eta foru politika publikoetan sartzeko edo babesa ematea, ikerketa, ekoizleen babesa, aholkularitza, trebakuntza, bilera eta mahai-inguruak, etab. sustatzeko.
- ✓ Herritarren kontzientziazioan lan egitea kontsumo arduratsuari dagokionez, informatuz, sentsibilizatuz eta garapenerako heziketaren bidez, eta publiko zabalari zuzenduz: ikasle, gazte, kontsumitzaile, tokiko/autonomiako enpresa-sarea...
- ✓ “Bidezko Merkataritzaren aldeko hiriak” deritzon sarean sartzeko.
- ✓ Kontratazio publikoan, bidezko merkataritzaren irizpideak eta hornitze-kateetako baldintza sozialen arreta barne hartzen dituzten klausula sozialak sartzeko.

2.5. Ekonomia komunitarioak

- ✓ Auzo eta tokian tokiko espazioetan komunitateko ekonomien sustapenerako jarduerak bultzatzea: herri baratzeak, trukean oinarritutako merkataritza, denbora bankuak...
- ✓ Irizpide ekologiko, feminista eta demokratikoen arabera kontsumoa bultzatzen duten tokian tokiko moneta sozialen sustapena eta garapena.
- ✓ Gizarte zentron eta herritarren kudeaketa komunitarioa ko-kudeaketa formulen bidez edo autokudeaketarako lagatzen bidez.
- ✓ Komun kulturalen ikusgarritasuna babestea.

3. Guztien onera begirako erakundeen politikak

3.1. Berrikuntza soziala eta tokiko garapena

- ✓ Tokiko ekonomiarako plan estrategiko bat identifikatzea, garapenerako helburuak barnean hartuko dituen ikuspegi sozial, ekologiko eta feminista batetik.
- ✓ Ekonomia sozial eta solidarioan trebatzeko planak garatzea, lanerako politiketan eta tokiko garapen sozio-ekonomikorako politiketan lan egiten duten langileei zuzenduta.
- ✓ Lanaren sustapen inklusiboa lortzeko estrategiak garatzea, lan munduan sartzeko zailtasun handienak dituztenei zuzenduta.
- ✓ Zerbitzu publikoen desmerkantilizazio eta desprivatizazio prozesuak bultzatzea.
- ✓ Parteniaratu publiko-sozial eta publiko-komunitarioarako estrategien garapena interes soziala duten zerbitzuak kudeatzeko.
- ✓ Herritarren parte-hartze guneak eta tresnak bultzatzea tokian tokiko politika publikoen sustapenaren barruan.
- ✓ Ekonomia sozial eta solidarioaren sustapena, berrikuntza sozialerako tresna gisa, eremu sozial nahiz ekonomikoan herritarren kolaboraziorako bultzada gisa eta lurraldeen arteko erresilientziaren sustapen moduan krisi eko-sozialen aurrean.
- ✓ Erakundeek kudeaketa ekonomikoaren ikuskatze publiko eta parte hartzaileak egitea eta kontrolerako eta gardentasunerako bitartekoak bermatzea. Horrez gain, tokian tokiko garapena neurtzeko auditoretza sozialerako adierazle erabilera eta guztien onera begirako politika publikoen egokitasuna ere bermatzea.

- ✓ Salbuespen fiskalak (OHZ eta udal tasak) eta sustapenerako beste neurri batzuk, eta bereizketa positiboa erantzunkideak, agroekologikoak, jasangarriak, feministak etab. diren enpresentzat.
- ✓ Landa-eremuen eta hiriko espazioen espekulazioaren aurrean, jarduera ekonomiko sozial eta komunitarioa garatzeko ustiapen soziala laguntzea.
- ✓ Ekonomia sozial eta solidarioko eremuen eratzearekin konpromisoa duten tokiko erakundeen sareak bultzatzea, eta bereziki, mankomunitateetako kolaborazio sareak eta udalerrien arteko sareak eratzea energia berriztagarri, finantza etiko, elikadura subiranotasuna edo kontsumo arduratsua bezalako alderdietan.

3.2. Herri ondasunen zaintza

- ✓ Herri-ondasunen (naturalen, hiritarren eta digitalen) identifikazioa eta babesa. Merkantilizaziotik at geratu behar dira eta modu publikoan, sozialean eta komunitarioan kudeatu behar dira.
- ✓ Uraren kultura berriaren paradigma onartu bere kudeaketa publikorako oinarri gisa, jasangarritasunaren irizpideekin eta guztien ona babesteko, horrela, uraren kudeaketaren edozein pribatizazio prozesu edota erabilera espekulatibo geldiaraziz.
- ✓ Lurraren zaintza eta babesa sustatu herri ondasun naturalen babesean oinarritzen diren planifikaziorako tresnen bidez, besteak beste, lurraren erabilera jasangarriago baterako ereduak, ekosistemen babesa, basoen kudeaketa egokia, larreen berreskuratze eta zaintza, hazi autoktonoen babesa eta transgenikorik gabeko lurren aitorpena aintzat hartuz.

3.3. Erosketa publiko arduratsua

- ✓ Erosketa publiko arduratsurako irizpideen eta tresnen ezarpena, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak ahalbidetzen duenaren arabera.
- ✓ Administrazio publikoetako langileri politikoa eta teknikoa eta eragile sozial nahiz ekonomikoak erosketa arduratsuari dagozkion gaietan formatzeko planak.
- ✓ Parte hartzeko espazioak eta behatokiak eta herritarren kontrola sustatzea kontratazio publikoa egiteko prozeduretan.

3.4. Garapen soziala

- ✓ Kohesio eta inklusio sozialerako lehentasun handiena duten alorrak sendotzea politikoki, teknikoki eta aurrekontuen bidez: oinarrizko errentak, politika sozialak, etxebizitza, hezkuntza, osasuna, etab.

- ✓ Iruzzurrari aurre egin eta politika fiskal progresiboago eta birbanatzaileago bat garatzea, gizartearen kohesioa eta babesa bermatzen dituzten zerbitzuak sostengatzea ahalbidetuko duena.
- ✓ Etxebizitzaren kudeaketarako eredu berriak bultzatzea: erabilera lagatzeko etxebizitzaren kooperatibentzako lur publikoa erreserbatzea, alokairu sozialeko etxebizitzaren parke publikoak sustatzea, belaunaldiarteko etxebizitzaren aldeko ekimenak eta bestelako elkarlaneko etxebizitzaren aldekoak garatzea, etxe hutsak zerga bidez zigortzea, etab.
- ✓ Emakumeen egoera kontuan hartzen duen etxebizitza politika publikoak diseinatzea eta abiaraztea.
- ✓ Lanpostu inklusiboak sustatzea gizarte-bazterkeria pairatzen duten edo pairatzeko arriskua duten pertsonen zuzendutako lan prestakuntzarako jardueren bidez, beren kontratazioarako pizgarrien bidez programa publikoetan zein enpresa pribatuetan, gizarteratze enpresen sustapenaren bidez, etab.
- ✓ Gizarteratze enpresentzako merkatuaren erreserba bultzatzea.
- ✓ Bonu soziala (elektrizitatea, ura...) bultzatzea eta edozein erakunde komertzializatzailearen (enpresa handiak soilik ez) kudeaketa.

3.5. Aldaketa eko-sozialerako heziketa

- ✓ Ekonomia solidarioko ekimenen zabalkunderako kanpaina publikoak bultzatzea: merkatu soziala eta kontsumo arduratsua, finantza etikoak, kontsumorako kooperatibak (energia, elikagaiak, nekazaritza ekologikoa...) eta herritarren sentsibilizazioa paradigma ekonomikoa aldatzeko beharraren inguruan.
- ✓ Parte-hartzean, lankidetzan eta proiektu kooperatiboen garapenean oinarritutako metodologiaren garapena hezkuntzaren arlo formalean nahiz ez-formalean.
- ✓ Komunitatearen eremuan aisialdiko heziketa bultzatzea hainbat eratako ekimenen bidez: lurraren eta herri-ondasunen zaintza, irabazirik gabeko trukea, jarrera ez-sexisten garapena, etab.
- ✓ “Kulturartekotasun kooperatibo”-ko espazioak eta prozesuak bultzatzea, jakintzaren, ezagutzen eta hainbat eratako esperientzien trukea sustatuz.
- ✓ Aisialdirako gune publikoak, ikastetxeak, etab. genero ikuspegia kontuan hartuz eta umeen partaidetzarekin diseinatzea.
- ✓ Ekonomia sozial eta solidarioarekin zerikusia duten edukiak hezkuntzaren ziklo guztietan sar daitezen bultzatzea.